

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

73. zenbakia

Data 2009-04-22

10 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK 315/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 17koa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

315/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 17koa, nekazariak eta abeltzainak 2007-2008 epealdian egindako gasolio erosketengatik Hidrokarburoen gaineko Zergan ordaindutako kuoten itzulketa bereziaren bidez kototasuna aitortu eta hura tramitatzeako prozedura ezarzen duena.

Urtarrilaren 13ko 17/2009 Foru Dekretu Arauak, zerga alorreko presazkoak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak, eta Aseguru Primaren gaineko Zerga aldatzen dituenak, 6. artikulua lehen apartatuko a) letran jasotzen duenez, nekazari eta abeltzainei Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten itzulketa berezia jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, baldin eta kuota horiek 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean egindako gasolio erosketengatik ordaindu edo jasan badituzte martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziari buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzen duenak, 50.1 artikulua 1.4 epigrafean jasotako tasan zergapetuta.

Presazko 1/2009 Foru Dekretu Arauak 6. artikulua lehen apartatuko b) letran ezarritakoaren arabera, aipatutako itzulketa bidezkoa izango da arau horretan aipatzen den gasolioak 2004ko urtarrilaren 1etik 2005eko abenduaren 31ra bitartean duen batez besteko prezioa, nekazariak jatorrian jasotako prezioen indizea gehituta, ez bada handiagoa gasolio horrek 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean duen batez besteko prezioa baino. Kontuan hartu beharreko prezioetan, ez dira sartuko horiei gehitutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak.

Bestalde, 6. artikulua horren hirugarren apartatuak dio Ogasun eta Finantza Departamentuak egiaztatuko duela lehen apartatuko b) letran aipatutako baldintza betetzen dela. Era berean, apartatu horrek dio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko duela Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa berezia egiteko prozedura, eta prozedura horrek berekin ekar dezakeela interesatuek zerga aitortpenak aurkeztu behar izatea, baita zentsu alorrekoak ere.

Behin egiaztatuta itzulketa egiteko baldintza bete egiten dela, hau da, 2004ko urtarrilaren 1etik 2005eko abenduaren 31ra bitartean gasolioaren batez besteko prezioa, nekazariak jasotako prezioen indizea gehituta, ez dela gasolioak 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean izan duen batez besteko prezioa baino handiagoa, bidezkoa da itzulketarako eskubidea aitortzea.

Honenbestez, honako hau,

XEDATU DUT

1. artikulua.

Nekazariak eta abeltzainek 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean egindako gasolio erosketengatik Hidrokarburoen gaineko Zergan jasandako kuoten itzulketa berezia jasotzeko eskubidearen bidez kotasuna.

Behin egiaztatuta bete egin dela urtarrilaren 13ko zerga alorreko presazko 1/2009 Foru Dekretu Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuaren gaineko Zerga, Zerga Bereziak, eta Aseguru Primaren gaineko Zerga aldatzen dituenak, 6. artikuluen lehen apartatuko b) letran ezartzen duen baldintza, bidezkoa da nekazari eta abeltzainei itzultzea 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean egin eta karburante gisa erabilitako gasolio erosketengatik Hidrokarburoen gaineko Zergan ordaindu edo jasan dituzten kuotak, betiere martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzen duenak, 50.1 artikuluen 1.4 epigrafean jasotako tasan zergapetu badira.

2. artikulua. Itzulketa berezia eskatzeko era eta epea.

1. Zerga alorreko presazko 1/2009 Foru Dekretu Arauak 6. artikuluan jasotakoaren indarrez gasolio erosketengatik Hidrokarburoen gaineko Zergan ordaindutako kuotak itzultzeko eskubidea aitortzen zaien nekazari eta abeltzainek eskubide hori gauzatu ahal izan dezaten, SGA eredia aurkeztu behar dute, paperezko euskarrian, 2009ko ekainaren 30a baino lehen. «Nekazariak eta abeltzainek gasolio erosketengatik Hidrokarburoen gaineko Zergan ordaindutako edo jasandako kuoten itzulketa berezia eskatzeko orria» izeneko eredu hori martxoaren 7ko 219/2008 Foru Aginduak onartu zuen, nekazariak eta abeltzainek gasolio erosketengatik Hidrokarburoen gaineko Zergan jasandako kuoten itzulketa berezia egiteko prozedura ezartzen duenak (3.1 art.).

2. Aurreko apartatuan aipatu diren eskaerarako, honako prozedurari jarraikiz aurkeztuko da SGA eredia:

a) SGA eredia edozein zerga bulegotan nahiz Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren eskualdeko nekazaritza bulegoetan aurkeztuko da, eta eskaeran honako datuak adieraziko dira:

1.— Eskatzailearen IFZ –9 karaktere–, deiturak eta izena edo sozietate izena, eta zerga helbidea.

2.— Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoak, 50.1 artikuluko 1. tarifaren 1.4 epigrafean ezarritako tasaren arabera zergapetutako gasolioa (aurrerantzean gasolio hobaritua) kontsumitu duten ibilgailuen matrikula.

3.— Gasolio hobaritua kontsumitu duen makina edo aparatu mota eta fabrikazio zenbakia.

4.— Hornidura bakoitzeko edo agiri berean bildutako hornidura multzo bakoitzeko, honako hau jarriko da: Fakturaren zenbakia eta data, gasolioa erosi den establezimenduko TIK kodea (Txikizkako Saltzailearen Identifikazio Kodea), erositako gasolio hobarituaren litro kopurua eta ordaindutako zenbatekoa, azken bi horiek bi zifra hamartarrarekin biribilduak. Itzulketaren onuraduna Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren subjektu pasibo ere baldin bada, Txikizkako Saltzailearen Identifikazio Kodea onuradunarena izango da.

Gasolio erosketak gasolio hobaritutako txeeen bidez ordaindu badira uztailearen 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuak, zerga berezien erregelamendua onartzen duenak, 107.1.b) artikuluan jasotakoaren arabera, aitortzaileak adierazi behar du guztira zenbait litro gasolio hornitu diren establezimendu berean ordainketa modu hori erabilia, eta datu hori eskaeran jaso. Datu horrekin batera honako hauek ere adieraziko dira: Bide hori erabilia ordaindutako zenbateko osoa eta karburantea erosi den establezimenduak Txikizkako Saltzaile gisa duen Identifikazio Kodea.

5.— Itzulketen transferentziak jaso behar dituen finantza entitatea eta kontu korrontearen kodea (kkk).

b) Eskatzaileak berak sinatu behar du eskaera, edo bestela, hirugarren pertsonen izenean itzulketa eskaerak aurkezteko baimendutako pertsonak edo entitateak.

3. artikulua. Egindako horniketengatik ordaindutako kuotak itzultzea.

2. artikuluan aipatutako eran aurkeztutako eskaerak jada azterturik, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunak, zilegi iritziz gero, erabakiko du bidezko kuotak itzultzea onuradunak eskaeran adierazitako kontura transferentzia bat eginez.

4. artikulua. Itzulketaren onuradunen obligazioak.

Foru agindu honetan esandakoagatik Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa jaso behar duten titularrek beren esku gorde beharko dituzte itzulketa eskaeran adierazten diren horniketak egiaztatzeko fakturak. Onuradunek 4 urtez gorde beharko dute dokumentazio hori, eskaera aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera kontatuta.

Xedapen gehigarria. Ogasuneko zuzendari nagusia gaitzea.

Ogasuneko zuzendari nagusiak beharrezko xedapenak eta jarraibideak eman ahal izango ditu foru agindu honetan jasotakoa gauzatu eta betetzeko.

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2009ko apirilaren 17a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(2942) (4739)